

RUGBYA

Pello Hontas miarritzarra aurreneko aldiz titular izango da V Nazioetan

«Ingalaterra-Frantzia neurketa irabazten duena izango da txapeldun»

Kirolari azkarra eta potentzia handikoa, defentsa lanerako jokalaria bikaina, Pello Hontas miarritzarra izango da euskaldun bakarra Frantziaren hamabosteko titularrean Ingalaterraren aurka, V Nazioetako torneoaren estreinuaren. Twickenhamen hilaren 16ko neurketa irabazten duena izango da txapeldun, Hontasen esanetan.



Pello Hontas Argentinaren aurka, atzean jokaldiari begira.

KOLDO ALDUNTZIN / DONOSTIA

Hamaika aldiz esan dugu honez gero, beti izan dela euskaldunen bat 'oilarrekoen' selekzioan V Nazioetako torneoan. Izenak ere gogorarazi ditugu sarritan, azkena Serge Blanco mitikoa. Frantziako Lehen Mailan indarrean ditugu Miarritze eta Baiona. Ez da harritzekoa beraz, partaideren baten selekzio nagusian parte hartzea. Jean Michel Gonzalez baionarra lesionatu eta kanpoan geratu da zoritxarrez, izugarrizko ikusmina sortu duen Ingalaterra-Frantzia neurketarako. Larunbatean Twickenhamen izango da, baina, beste euskaldun bat: Pello Hontas.

Junior mailatik hasita, guztietan jokatu du Pellok. 1966ko uztailean 19an jaioa, 1,82 metro ditu Miarritzeko hegale indartsuak. Kirolari 7 urterekin ekin zion, eta ez rugbyari gainera. Xisteran eman zituen urte batzuk, eta 13 zituela uztea erabaki zuen, klubarekin eta buruekin zituen ezadostasunak medio. Segidan atletismoan saiatu zen, 17 urtera arte. Azkenik rugbyari buru-be-

larri sartu eta, egia esan, ez doakio batere gaizki.

Lehen urtean junior izan eta gero, 18 urterekin lehen ekipora pasatu zuten, beti era Miarritzen. Adin horrekin, junior selekzioan hartu zuen parte. Geroztik, 'spoir' B eta A selekzioetan izan da. 26 urterekin, lehen aldiz jokatu du V Nazioetan. Duela hiru urte hala ere, Eskozia eta Irlandaren aurka jokatu zuen *test match*-etan. Bi nazio horiez gain, 1992ko urritik hasita oso partidu garrantzitsuak jokatu ditu: urriaren 3an frantziar gazteekin Hego Afrikaren kontra, Argentinaren aurka Côte Basquerekin azaroaren 4ean eta hegoamerikarren kontra berriro ere azaroa-

ren 14ean, Frantzia Arekin. Errumaniaren aurka ere jokatu du.

EUSKAL HERRIA ORDEZKATZEA GARRANTZITSUA

Astearte iluntzean hartu zuen hegazkina Pariserantz abiatzeko. Joan den astean bost egun pasa zituzten frantziarrek elkarrekin. Aste honetan ere, igandera arte egongo dira Parise ondoko Clairfontainen. Berarekin egon ginen eta zenbait adierazpen egin zizkigun txapelketari buruz.

EGUNKARIA.— Ingalaterraren aurka zu izango zara euskal jokalaria bakarra deialdian. Ohore handia izango da?

PELLO HONTAS.— Oso garrantzitsua da zalantzarik gabe Eus-

kal Herriaren izenean parte hartzea, beti izan baita euskal ordezkariaren bat selekzioan. Espero dut Gonzalez lehenbailehen itzultzea osatu ondoren.

EGUNKARIA.— Hasiera gogorra izango duzue munduko txapel-dunordearen aurka.

HONTAS.— Oso zaila izango da partidua, baina itxaropentsu gaude. Espero dut Frantzia ongi aritzea, eta irabaziz gero lorpen handia izango da.

EGUNKARIA.— Bolada nahasi eta kaskarrean aurkitzen da Frantzia. Argentinaren aurka galdu, Hego Afrikaren aurka porrota...

HONTAS.— Egia da. Espero ez ziren emaitzak izan ditugu azkenaldian. Espero dut partidu txar hau atzetik britainiarren aurka ona ateratzea.

EGUNKARIA.— Aldaketa asko izan dira hamabostekoan. Azkenik ordeza, berriro Camberabero, Sella, Armary, Mesnel eta abar hor dira. Zergatik?

HONTAS.— Bervizierri galdetu beharko genioke hori. Hala ere, jokalaria hauek forma onean daude orain. Horregatik, entrenatzaileak konfidantza dute eta beraien postuetan hobekien daudenak dira.

EGUNKARIA.— Ingalatera al da selekzio indartsuena?

HONTAS.— Txapelketako partidurik garrantzitsuena izango da larunbatekoa, eta irabazten duena txapeldun izango da ziurren. Bestalde, beteranoak dira britainiarrak, baina guk ere esperientzia handiko gizonekin jokatu dugu. Hala ere, gazteak ere badaude bi taldeetan, maila handikoak. Batez besteko adina antzekoa dugu. Esperientziaduna, gazteen laguntzaz.

LABURREAN

BARI futbol taldea entrenamendua utzi beharrean

Italiako Bari futbol taldeak bertan behera utzi behar izan zuen entrenamendua, zaletu multzo batek RAI telebista kateko kazetari batzuei eraso eta jokalarien aurkako jarrera azaldu eta gero. Ondorioz, poliziak ere parte hartu behar izan zuen, arazo gehiago ez sortzeko. Jokalariek polizien autoetan joan behar izan zuten entrenamendu zelaitik, eta kazetariak ere poliziaren laguntza behar izan zuten.

SASKI-BASKONIAK finantzaketa bide pribatuak aurkitu beharko ditu

Pedro Ramos, Arabako Kultur Diputatuak, Araba pabilioia handitzeko finantzaketa bide pribatuak aurkitzeko eskatu die Saski-Baskonia klubeko agintariei. Diputatuaren hitzetan, diru publikoa «gauza txikiak» ordaintzeko baino ez litzateke erabili behar. Ramosek esanetan, Saski-Baskoniak finantzaketa bide pribatuak aurkitzeko ahaleginak egiten baditu, «Diputazioa gestio pribatua bultzatzeko prest dago».

KARPOV: «Ezingo dute Kasparov gainditu»

Jan Timman eta Nigel Short xake jokalariek ez dute, «zoritxarrez» zer eginik izango Gari Kasparov munduko txapelduaren kontra, Anatoli Karpoven esanetan. Errusiarrak Hautagaien Torneoako finalerdietan galdu zuen, Shorten aurka. «Kontzentrazio falta izan nuen orduan. Berriz jokatu bagenu, ez zukeen inolako aukerarik izango nire aurka».

GOLF: Europako Zirkuitua gaur hasiko da

Madeirako Irekiak emango dio hasiera gaur Europako Golf Zirkuituari. Denboraldi honetan, 39 torneo jokatu dira guztira, iaz baino bat gehiago. Sariei dagokienez, oraindik ez dago zehaztuta, baina Jokalari Profesionalek Elkartearen (PGA) arabera, 4.500 milioi pezetan banatuko dira guztira.

PILOTA

Telebista emankizunak konponbiderik gabe etenarazi zuen enpresari bilera

X.M. / DONOSTIA

Atzo goizean Garain bildu ziren ohizko enpresariak eta Asegarce, ETB eta TVEko arduradunekin batera, Bigarren Mailako Manomanistaren finala non eta noiz jokatu den erabakitzeko. Eguerdia parterako bi aldeek onartu zuten Beloki eta Irazola-ren arteko partidua Tolosako Beotibar pilotalekuan jokatzea, baina gero, finala zein telebista

katek eskaini behar duen eztabaidatzean, aurreko akordio hori ere bertan behera geratu zen. Gormutuen arteko eztabaida bihurtu zen Garaiko bilera, enpresari tradizionalek Promotecnicek etxearen bidez finala ETBk zuzenean eskaintzea hitzartuta zutela argudiatu zuten bitartean, Asegarcek TVEk eskaintzeko aukera muturreraino bultzatu baitzuen. Finala bi katek eskaintzea ere proposatu zuten Asegar-

ceko ordezkariak, bainaitsu bidean, bilera konponbiderik gabe eten zuten.

Jakina zen bi aldeek arteko harremana ona ez dela, baina Garaiko bileran nork bereari eutsi zion, beste aldearen argudioak kontuan hartu gabe, eta ez zen posible izan ezer zehaztea. Gaur jarraituko dute bilera ohizko enpresariak eta Asegarcek, eta erabakia lehenbailehen hartzea ezinbestekoa da.

JAIALDIAK

Gaurko partidua

GALARRETA. 16.00. Egialde-Zandio / Zubeldia II - Etxabe. Matxin - Eizagirre / Elizalde II - Etxeberria. Intxauburu - Saldias / Lezea - Txikuri. Odriozola - Imaz / Bitoria - Iriarte II.

EUSKAL. 16.00. Urrutia II - Ekiza / Iñigo - Soto. Arregi - Aizpuru / Altuna - Zubeldia. M. Lekunberri - Aranburu / Salaberria - Auzmendi. Urrutia - Zestau / Larrañaga - Astrain.

DEPORTIVO. 16.30. Egibar - Aia Zulaika / Lekue - Alvarez. Iturzaeta - Otero / Isusi - Sanchez - Torre. Arribillaga - Langarika / Iriarte - Goldarazena.